

Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaeran, hala behar badu, eskaneaturik erantsiko dira, behar bezalako kalitatearekin, ondoko dokumentuen jatorrizkoak:

- a) Familia unitateak PFEZaren aitorpena egin ez badu, legez horretara beharturik ez dagoelako, honako hauek erantsi beharko dizkio eskabideari:
 - Udalak luzaturiko erroldatze eta bizikidetzaz egiaztagiria, 2022. urteari dagokiona.
 - Besteren konturako langileen edo pentsiodunen kasuan, 2022. urtean izandako diru-sarreraren frogagiria.
 - Enpresaburu edo profesional liberalen kasuan, 2022. urtean izandako diru-sarrera gordinen aitorpena.
- b) Kenketen justifikazioa (ezgaitasuna...) ziurtagiri eguneratuekin.

Ikasketarengatik etxetik kanpo bi anai-arreba edo gehiago daudenean, alokairu edo bizitegi kontratua aurkeztu behar da.
- c) Ziurtagiri akademikoak, bekaren onuradun izan behar duen ikasleak Nafarroatik kanpoko ikastetxe batean ikasten duelarik.
- d) Etxetik kanpoko jantoki zerbitzuaren beharraren egiaztagiria (eskola ordutegiak, praktiketakoak eta abar).
- e) Alokairu edo bizitegi kontratuaren frogagiria.
- f) Familia ugaria edota guraso bakarreko familia dela egiaztatzen duen titulu ofiziala.
- g) Bidezko hartzen diren dokumentu eta ziurtagiri guztiak.